



**Zerbitzu berri bat jarri du martxan Azkoitiko Udalak: Open Data, datu publikoen biltegia.**

Gune horretan Udalak modu ireki eta librean argitaratzen dituen datu publikoak eskegiko ditu, eta datu horiek ikusi ez ezik, grafikoki aurreikusi, formatu ezberdinetan jaitsi edota beren bertsio semantikora sartzeko aukerarekin. Izan ere, administrazioen gardentasuna ahalbidetzearekin batera, datuon berrerabilpena bultzatzea ere bada Open Data filosofiaren helburu, norbanako nahiz enpresek datu hauek edozein unetan eta edozein tokitatik eskuragarri jarrita.

**Interneten dago kontsultagai,**  
[opendataazkoitia.gobernuirekia.net](http://opendataazkoitia.gobernuirekia.net)  
**helbidean.**

Datu biltegia hasiera fasean dago, eta oraingoz honako sailtako informazioa dago eskuragai: Udala, ekonomia, ingurumena, lana eta enplegua eta turismoa eta aisia. Asmoa ordea, datu base hori zabaltzen joatea da, herritarren eskarien arabera. Izan ere, biltegi hori herritarren beharren arabera eta eurekin elkarlanean osatu nahi du Udalak.

Elkarmedia enpresa ari da garatzen Open Data sistema Udalarentzat.